

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko ekainaren 6a

*



Zazpi milatik gora lagun bizi dira gaur egun Mendillorri urbanizazioko etxeetan.

LUIS AZANZA

Mendillorri igandeko erreferendumaren zain

■ 6.914 eguestarrek (haietako 5.749 Mendillorrikoak) bailarako hego-mendebaldean den urbanizazioaren etorkizunari buruz duten iritzia plazaratzeko aukera izanen dute etzi. 1993. urteko udan ailegatu ziren lehenengo biztanleak Mendillorrira, eta urte horretan jada, bailaratik banandu eta urbanizazioa Iruñeko Udalean sartzeko espedientea zabaltzeko eskatu zion Nafarroako Gobernuak Eguesibarko Udalari. Gobernuaren asmo hori ez da oraindik gauzatu.

Mendillorriko biztanleen artean, gainera, iritzi ezberdinak sortu dira. Orain dela hilabete eta erdi, adibidez, Udal Propioaren Auzokideen Ekimena sortu zen Mendillorriin. Talde horretako kideen ustez, hori da Mendillorriko biztanleentzat aukerarik egokiena. Bitartean, hainbat hilabetez harremanak eten ondoren, Mendillorriri buruzko aurreakordioa lortu zuten joan den ostiralean Nafarroako lehendakariak eta Iruñeko alkateak. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Eskola guztietan txinatar bat egoten zen. Arteka bat izaten zuen kapelu horian, baina eltzetxo hutsik egoten zen ia beti. Urtean behin jasotzen genituen tarteka. Haietan agertzen ziren fotoetako gizon zuriak, besoa gazte beltzaren bizkarrean jarrita, zuriz jantzita egoten ziren, eta salakotak babesten zien burua eguzki eternaleko urrun haietan. Aldian behin eskolara etortzen zitzaizkigun. Eskean, haiak ere, nahikoa dotore hartatik. «Pobreak, oso pobreak», errepikatzen zuten behin eta berriz. Bizarra zuten politena, bizar luze urdindua. Istoriok uzten zizkiguten: sugetzarrak, kanibalak, sineskeriak, azken uanean salbatu zen harena... Txiste grafikoek pertz haundi baten barnean eta beltz gosetiz inguratutik irudikatzen zituzten. Urteak joan ahala txisteak egiten ikasi genuen haien lepotik. Borrokak partehartzea

Misioak

eskaten zuen. Misiolarien lanarekiko destainak batzuen galderek eta zalantzek adina iraun zuen: gutxi. «Ezin ukatu gogorra behar duela izan», hasi ziren batzuk, errukior. *Momentum catastroficum* honekin batera itzuli dira, eta oraingoan pantailara. Lehenik marxismora bihurtu zirenak hil zituzten, gero besteak, *hermanito*-ak. Abiturik gabeko asko bildu zaizkie azken aldi honetan. Telediarrietan ere onuragarriak direla diote, humanitarioak edo... Bazkide izateak errenta aitortpenean desgrabatzen duela jakin nuen gero. Ramonet kazetariak ere obra unibertsal honetako aktoretzat hartzen ditu: lobby-ak, estatu batasunak eta GKEak. Zaku haundiegia dela esan lezake norbaitek, oso asmo diferentekoak direla sigla horien atzean. Gutxi dira, ordea, etorri eta isilik dirautenak, galdetzen ez badiezu ezer

kontatzen ez dutenak. Horiek ez dira jada sorterrian laketzen, desosegua sortzen zaie etorri orduko, urrun haietara zuzentzen zaizkie begiak nahi gabe, hara aldatu dira oharkabean, eta ez dute nekea izkututzen, menturaz bataiatzeko gogoia joan zaielako. Beste mota bateko emigratzaileak dira. Betidanik izan dira.

Hotzikara beste guztiakin heldu da. Txertoa jarri, kamera aldean, demokraziaren gurutzea eta ur bedeinkatua harturik abiatuko zaizkizu. Mentura berriak. *It's very cool*. Konklusioa ere botako dizute egonaldia amaituta, diapositibak botatzen dizkizuten bitartean: «Gu baino gauza gutxiago izanagatik konformidade onekoak dira, eta gu baino zoriontsago bizi dira». Eskarmentua? Superfuertea. Superinteresgarria. Pertzaren txisteaz oroitzen naiz batzuetan. X

KONTZERTUAK

Barañain: Sahats euskaltegiaren 20. urtemuga dela eta antolatutako ekitaldien barruan, kontzertu eskainiko du gaur Lur taldeak, gaztetxean. Arratseko 8etan hasiko da, 300 pezetaren truke.

Etxalar: Los Dinosaurios taldeak kontzertua eskainiko du gaur Herriko ostatuak antolatuta. Gaueko 11etan hasiko da eta dohainik izanen da.

Elizondo: Rigor Mortis taldea Casino ostatuan izanen da gaur, gaueko 11etatik aurrera.

Leitza: Brigada Slam taldeak kontzertua eskainiko du bihar Kirkil tabernan, gaueko 11etan. Dohainik izanen da.

Iruñea: Joaquín Sabina Gaiarre antzokian izanen da asteartean, gaueko 9etatik aurrera. 3.000 eta 2.500 pezetatan izanen dira sarrerak salgai.

ANTZERKIA

Barasoain: Los Galindos taldeak *Recuerdo de Constantinopla* lana antzertuko du bihar, pilotalekian, arratsaldeko 8:30etan. Obra bera Obanosen aurkeztuko du Obanosen talde horrek.

Zizur Nagusia: Ñake konpainiak *Comicos muy peligrosos* antzertuko du gaur, Kultur Etxeko antzokian, gaueko 10etatik aurrera.

Zangoza: *Bienvenidos al oeste* taularatuko du igandean Kollins Clown taldeak herriko plazan, arratsaldeko 6etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Ilunberri: Maria Jesus del Castelloren margoak ikusgai izanen dira igandera bitartean, Udaltzeko aretoan.

Iruñea: Virginia Boschen buztinezko lanak Pintzel galerian dira ikusgai, gaurtik hasi eta hilaren 21era bitartean.

LEHIAKETAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki Testuen VI. Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustín, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehen baina lehen.

BESTELAKOAK

Iruñea: Alde Zaharreko lurrarzikozko zerbitzu galeria ezagutzeko aukera dago larunbat eta igandean, ekainaren 21era bitartean. Bisitak goizeko 10etan hasi eta 12:30etan amaitzen dira. Ordu erdikoa da bisita bakoitza. Parte hartu nahi duenak 22 15 06 telefonora deitu behar du.

nafar kronika

Fermin Erbiti

Arazoak eta ergelkeriak

Aurreko artikuluan Nafarroak orain dela urte guti bizi izan zuen zorientasun garai paregabea lekutan zegoela nioen etsita. Zorionez, hura erran eta bi egun beranduago Fernando Arretxe egoera negargarria zuzentzen hasi zitzaigun Elkorori irabaziz. Gizartean badira arazo larriak, kazetariok askoz garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigunak, baina dudarik ez dago kirola eta, hain zuzen ere, futbola dela gurean kezka nagusia, herri bat alaitu eta haserretu, piztu eta etsiarazten ahal duena. Horrexegatik, Martinen eskutik Osasunak lortu duen piztuerak 80ko hamarkada zorientsu hartara eramana gaitu. 30.000 lagun Sadarren, Los Iruñako taldearen kantu hunkigarria (*Vibra en ti Navarra enteraaaaaaa, en donde quiera que estes...*) eta mitoa, desagerturikoak ordezkari ditzakeen mito berria gizarte mitozalarentzat: Martin, San Martin.

Heldu den urtean Osasunak bigarren dibi-sioan segituko duela ziurtaturik, Sadarreko pal-koa batere gustuko ez duen Iruñeko alkatea Sanz diputazioburuarekin bildu zen bi adminis-trazioen arteko arazoak konpontzen saiatzeko.

Ez da marketin-teknika txarra arazoak sortu, oso korapilatsuak direla errepikatu, egun bate-tik bertzerara konponezina zirudiena konpondu, ez konpontzeak etsai politikoari eginiko kalteak norberari ere kalte egin diezalokeelakoan, eta hura politikoaren eraginkortasunaren frogatzat saldu nahi izatea. Hain polemika luzea hamar minututan konpondu bazen, bi aukera daude: arazorik ez zegoela edo bazkarian (bilera arratsaldean egin zen) behar baino gehiago edan zutela.

Arazoak aipatzen ari naizenez, euskara ezin ahantzi. Filosofo argi batek errana dakigu ar-azoa ez dela Nafarroan euskaldunon eskubideak errespetatzen ez direla, kontrakoa baizik: Admin-istrazio euskaltzalegia dugu, agintariak eus-kararen aldeko gehiegizko apustua egin dute. Ustezko filosofo horrek diskurtsoak ongi osa-tzen badakiela frogatu du behin baino gehia-gotan. Alde horretatik, duela guti Iruñeko telebista batean euskararen aurka agertu zirenen maila lotsagarria hobetu du horrek ergelkeriak txukun azaltzen badakielako. Gauza jakina da, ordea, ergelkeria, ongi azalduta ere, ergelkeria hutsa dela. Eta ergelkeriak erraten dituen...



ahaztu gabe!



HERRIKO JAIAK

Saratsa: Maiatza eta ekaina ailegatuta, jaiak hasten dira Nafarroako herri asko eta askotan. Gaurtik aurrera, adibidez, Saratsako herritarrek ospatuko dituzte herriko besta egunak. Arratsaldeko 8etan egingen du ez-tanda jaiak iragarriko dituen altxaferuak zeruan. Igandera bitartean, beraz, besta izanen da nagusi Saratsan.

Gaur altxaferua bota ondoren, bihar hasiko dira jaietako ekitaldiak. Bihar eguerdian, hain zuzen ere, txistorra jate herrikoia egingen dute. Arratsalde partean, berriz, haurrentzako ekitaldiak izanen dira protagonista. Neska-mutilak alaitzeko pallazoak ailegatuko dira herrira. Halaber, txokolate jatea eta mozorro jaiak egingen dituzte. Musean aritzeko tarteak izanen dute herritarrek, gainera, arratsaldeko 5etatik aurrera, bai eta dantza egiteko ere, arratsalde eta gau partean.

Igandeko ekitaldiak goizeko 11:30etan hasiko dira. Ordu horretan meza egingen dute, eta ondoren, erronda herrikoia. Haurrentzako gaztelu puzgarria jarriko dute arratsaldean, eta magia saioa egingen dute. Musika ere ez da faltako igandean, Diego Quevedoren mariatxiaren esku-tik. Gaueko 9etan, azkenik, *po-bre de mi* abestuko dute.

asteko pertsonaiak

adi!



Cesar Palacios
Osasunako jokalaria

■ Mallorcaren aurka egin bezala, Palacios gorritxoak sartu zuen joan den larunbatean Osasunari garaipena eta Bigarren A mailan gelditzeko aukera eman zion gola. Levanteren aurkako partiduan izan zen, bosgarren minutuan. Iruindar eta nafar gehienek uste ez bazuten ere, Osasunak mailari eustea lortu du, ametsa errealitate bihurtuz. Larunbateko partiduan Sanferminetako giroa izan zen nagusi, eta igandean ere, Ourensek Toledoren aurka galdu zuela jakin zutenean, kalera atera ziren ehundaka eta ehundaka zale gorritxoaren garaipena ospatzera, Cesar Palaciosen sartutako gol erabakigarriari esker lortutako garaipena, hair zuzen. Enrique Martin Monreal Osasunako entrenatzailea ere garaipen horren giltzarri izan da.



Jose Maria Jimeno Juriok
Historialaria

■ Jose Maria Jimeno Juriok *Nafarroa. Euskararen historia* liburua plazaratu zuen astelehenean, Txalaparta argitaletxearen eskutik. Azken 30 urteotan hainbat artxibotan egindako ikerketa lanaren emaitza da. Liburuak Nafarroaren historian barrena ibilbide luzea egiten du, euskara ipar hartuta. Jimeno Juriok berak, esaldi bakar batez laburbildu zuen liburuaren funtsa asteleheneko aurkezpenean: «Euskara oinarritzko osagaia izan da eta da Nafarroaren nortasunean. Euskara gehiegi politizatu da, eta politika hizkuntzaren etsaia da». Nolanahi ere, baikor egoteko arrazoiak badirela gehitu zuen Jimeno Juriok. «Arazoak arazo, itxaropentsu egoteko arrazoiak badira», esan zuen.

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar-rrizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-entzako saioa 12.30etan.

Barañain

Ekitaldi ugari ekaineko egunetan

Hilaren 25etik 29ra bitartean, gainera, bestak ospatuko dituzte herritarrek

Barañaingo Kultur Patronatuak antolatuta, ekitaldi ugari ospatuko dituzte hil honetan guztian: tailerrak, erakusketak, antzerkia eta musika izanen dira, besteak beste. Kultur Patronatuak antolatutako ekitaldi horiez gain, hilaren 25etik 29ra bitartean herriko bestak izanen dituzte Barañainen.


Erredakzioa / Iruñea

EKAINEKO ekitaldiak egunotan jarri dira abian. Asteartean, hain zuzen, esmalte eta zeramika tailerrak hasi ziren. Ikastaro irekiak dira eta nahi duenak har dezake parte. Kultur Etxean izanen dira, astearte eta ostegunetan. Esmalte tailerra datorren ostegunetan amaituko da, eta zeramika ikastaroa, berriz, 26an.

Harizti dantza taldeak antolatuta, halaber, Akelamendi eta Kolonoen dantza ikasteko aukera izanen dute herritarrek, gaur hasi eta hileko ostiral guztietan. Zortzietatik bederatzietara izanen da, Sahats ikastetxean.

Ikastaro eta tailerrak ezezik, haurrentzako antzerki zikloa egingen dute Barañainen datozen egunetan. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Antzezlan guztiak udaletzeko erabilera anitzeko gelan izanen dira, arratsaldeko bostetatik aurrera.

Trokolo taldeak emanen dio gaur hasiera aipatu zikloari. *Tantaz-tanta* lanaren antzezpenarekin. Datorren asteazkenean, berriz, Sambhu antzerki taldeak *Lenaren sekretua* eskainiko du, eta hilaren 17an, *Axeriaren ja-*



Dantza ikastaroa ere izango da ekaina bukaeran Barañainen.

XOUSE SIMAL

bula taularatuko du Binefarko Titiriteroak konpainiak.

Erakusketei dagokionez, hiru ikusteko aukera izanen da Barañainen, Kultur Etxeko erakusketak aretoan, hain zuzen ere. Hasteko, datorren ostiralera bitartean, herriko pintura taldeak ikasturtean egindako lanak izanen dira ikusgai. Hilaren 27ra bitartean, berriz, bestetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak erakutsiko dituzte Kultur Etxean, eta azkenik, hilaren 17tik 27ra bitartean, Anfaseko keramika tailerreko kideek urtean egindako lanak ikusi ahal

izanen dira leku berean.

Diapositiba emanaldiak ere ez dira faltako ekaineko agendan. Datorren ostiralean, hain zuzen, Kamerungo diapositibak erakutsiko ditu Jose Luis Larreak *Bes-telako oporrak* izenburupean. Haizea kultur elkartearen egoitzan izanen da, arratsaldeko zortzietan. Biharamunean, Mutil Gazteak eta Barañaingo txarangek euren emanaldia aurkeztuko dute Udaletxe plazan, ordu berean.

Ekitaldi horien guztien ondotik, hilaren 25etik 29ra bitartean, herriko jaiak ospatuko dituzte.

Udalak jakinarazi duenez, laster plazaratuko dute aurtengo egitaraua. Herriko taldeek ere laster emanen dute ezagutzera barraken eremuan izanen den programazioa.

Aurretik giroa ederki alaitzeko, gainera, larunbatero Konstituzio parkeko anfiteatroan euskal dantzak ikasteko aukera izanen da, arratsaldeko zazpi eta erdie-tan. Eta igandero, Ezpelur gaitariet dianekin alaituko dituzte herriko karrikak. Barañaingo Sahats euskaltegiak, gainera, 20. urtemuga ospatuko du hilaren 21ean. X

Amaiur

Bailarako ibilaldia etzi egingen dute baztandarrek

■ *Baztango Mendigoizaleak elkarteak antolatuta du*

Erredakzioa / Iruñea

BAZTANGO Mendigoizaleak antolatuta, bailarako ibilaldia egingen dute igande honetan baztandarrek. Ibilaldi neurtua izanen da, Baztango eskualdean zehar. Amaiurren hasi eta han amaituko baita igandeko mendi irteera. Tartean, Bidea, Alkurruantz, Otsondo, Ansestegi, Eskola, Erreka, Itsusi, Irubelakas-ko eta Itzulegiko gainetatik igaroko dira partaideak.

Ibilbidean zortzi kontrol jarriko dituzte antolatzaileek, bai eta janaria eta edaria hartzeko postuak ere. Otsondo, Eskola, Erreka, Itzulegi eta Amaiurren. Parte hartu ahal izateko 700 pezeta ordaindu beharko dira.

Hamabost urtetik gorako mendizaleek izanen dute ibilaldia egiteko aukera. Inteeran partehartzaile bakoitzari txartela emanen diote antolatzaileek, kontrolatan erakusteko. Lehengo taldea goizeko zazpitan aterako da, eta gainontzekoak izena ematen duten partehartzaileen zerrendako ordenari jarraituz. Bidea behar bezala seinalizatuta egonen da, inor gal ez dadin. Antolatzaileek, gainera, osasun postuak jarriko dituzte ibilbidean.

Urtero legez, igandeko ibilaldian ere ez da inolako sailkapenik izanen, eta finkatutako denboretan kontrol postuetatik igarotako guztiei emanen zaie diploma bana. X

Burlata

Kultur Astea ospatzen ari da Axular Elkarteak

■ *Igandean zikiri jatea egingen dute herritarrek*

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO Axular Elkarteak Udaia, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz antolatuta, herriko Kultur Astea ospatzen ari dira egunotan. Ekitaldiak astelehenean hasi ziren eta igandean amaituko dira. Axular Elkartearen egoitzan dira guztiak.

Gaurko egitarauari dagokionez, arratsaldeko seietan hasiko da. Ordu horretan, haurrentzako txokolate jatea egingen dute. Arratsaldeko zortzietan, bestalde, kirolak hartuko du lekukoa, eta pilotari buruzko mahai-ingurua egingen dute. Besteak beste, Arretxe eta Beloki pilotariet parte hartuko dute.

Bihar arratsaldeko seietan herri-kirolen erakustaldia izanen da. Ondoren zezen suzkoa aterako da plazara, eta jarraian, dantzaldia hasiko da, Joselu Anaia taldearen eskutik. Gaueko hamarretan txistorra jatea egingen dute, eta ondoren Joselu Anaia taldea ariko da berriro.

Igandean, azkenik, goizeko harretatik aurrera, eskulangi-leen erakusketak izanen da. Eta eguerdian, Larratz dantza taldearen emanaldia. Erraldoi, burhandi eta zanpantzarren konpartsa ere kalera aterako da ordu horretan Axular Elkartearen egoitzatik. Ondoren, arratsaldeko ordu bietan zikiri jatea egingen dute, eta bazkalostean, musika. X

Tutera

Bihar hasiko da Udalak antolatu Gazte Musika zikloa

■ *Uztailaren 17an Ella baila sola bikoteak joko du*

Erredakzioa / Iruñea

HERRIKO jaiak hasi baino lehen eta giroa berotzen hasteko, beste urtetan abian jarritako ohitura berreskuratu du aurten Tuterako Udalak. Herriko Etxeko kideek, hain zuzen, Gazte Musika izeneko zikloa antolatu dute, eta bihar jarriko da martxan.

Gaueko hamar eta erdie-tatik aurrera, hain zuzen, Outsider taldeak kontzertua eskainiko du, Gaztanbide antzokian. Jatorriz kataluniarra da Outsider taldea eta ingelesez abesten dute. Sarrerak 1.500 pezetatan izanen dira salgai antzokian bertan, eta aurretik eskuratuz gero, 1.200 balioko du bakoitzak.

Tuterako bertako pop eta rock taldeek ere izanen dute Gazte Musika zikloan parte hartzeko aukera, hilaren 20 eta 27an egingen dituzten kontzertuetan, hain zuzen ere.

Aurtengo zikloko egun nagusia, dena den, uztailaren 17koa izanen da, Ella baila sola bikote ezagunak kontzertua eskainiko baitu Tuteran. Beste urtetan ere, halako kontzertuak egin dituzte Tuteran jaiak hasi aurretik, Berteri peña eta Udalaren eskutik. Azken kontzertua orain dela lau urte egin zuten, eta, aurten, ekimen hori berriro abian jarri nahi izan dute Udalak eta Intro enpresak. Aurtengo emaitzak nolakoak izanen diren kontuan hartuz, datorren urtean errepikatze-ko aukera izan daiteke. X

Iruñea

Haurren Ibilaldia Erreniegara joanen da hilaren 15ean

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO Nafarroa Kirol Elkarteak antolatuta, Haurren Bigarren Ibilaldia Erreniegara egingen dute igandean, hilaren 15ean, Zizur Nagusitik abiatuta. Parte hartu nahi duenak zabalik du izen emateko epea, elkartearen egoitzan edo 22 42 24 telefonora deituz.

Erreniegako ibilaldia 9 eta 15 urte bitarteko neska-mutuei zuzendua antolatu dute Nafarroa Kirol Elkarteak kideek, eta azpimarratu duteenez, natura ezagutaraztea dute helburu, batez ere mendira joateko aukera handirik ez duten haurrei.

Ibilaldian parte hartu ahal izateko izena eman besterik ez da egin behar, dohainik baita. Mendizaleak Zizur Nagusiko ikastetxe publikotik aterako dira, goizeko zortzi eta erdie-tan, eta Erreniegara igo ondoren, bertara itzulliko dira. X

Mendillorriren etorkizuna
argitzeko erreferenduma

Mendillorri, hiri edo herri

Egustarrek urbanizazioari buruz duten iritzia emanen dute igandeko erreferendumean

Mendillorriko, eta Eguesibarko biztanleek oro har, urbanizazioaren etorkizunari buruzko iritzia plazaratzeko aukera izanen dute igandean, goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko zortziak bitartean. Azken bi urteetan Mendillorriko hainbat lagunek eskatu bezala, erreferenduma egingen dute, azkenik. 6.914 egustarrek izanen dute igandeko herri kontsultan bozkatzeko eskubidea. Horietako 5.749 Mendillorri bizi dira, gainerakoak bailarako beste herrietan.

Edurne Elizondo / Iruñea

Bi izanen dira egustarrek erantzun beharreko galderak igandeko erreferendumean: Mendillorriko Eguesibarren jarraitzea edo handik bereiztea nahi duten, lehenik; eta bigarrenik, bananduz gero zer nahiago duten, beren udala sortu edo Iruñekoan sartu.

Igandeko erreferenduma egitea erabakitzeke, hainbat urrats egin behar izan dira aurretik. Alde batetik, Erreferendumaren Aldeko Plataforma sortu zuten Mendillorriko zenbait biztanlek 1995eko azaro aldera, eta bestetik, UPN eta CDN edo Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udalaren arteko Mendillorri buruzko tira-birek ahalbideratu dute erreferenduma antolatzea. Erreferendumaren kontra egon den Eguesibarko Udalak ere kontsulta egiteko eskatu du. Kalitatezko botoarekin erreferendumaren aukera bertan behera utzi ondoren, alkateak berak proposatu zuen egitea, azkenik, eta Udalak onartu.


Erreferenduma egingen zela erabaki zeneko eta gaur egungo egoera, dena den, ez da berdina. Iruñeko Hiriburutza Agiria zela eta hainbat hilabetez Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanak etenda egon ondoren, urbanizazioaren etorkizunari buruzko aurrekordioa —Mendillorri Iruñean sartzeko— lortu baitzuten Nafarroako lehendakari Miguel Sanzek eta Iruñeko alkate Javier Chourrautek joan den ostiralean egin bileran. Aurrekordio hori, beraz, erreferenduma egin baino astebe lehenago lortu dute bi administrazioetako buruek. Ikusteko dago orain, Mendillorriko biztanleek erabaki horrekin bat egingen duten edo ez, bai eta Nafarroako Gobernuak erreferendumeko emaitza aintzat hartuko duen edo ez ere.

Edonola ere, ezin da ahanzi 1993. urtetik asko aldatu direla



1993. urtean ailegatu ziren lehen biztanleak Mendillorri. Argazkian lehenengo fasea.

LUIS AZANZA



Hiru urte bitarteko mila haur baino gehiago daude gaur egun Mendillorri.

LUIS AZANZA

gauzak Mendillorri, eta haien etorkizunari buruz iritzi ezberdinak dituztela biztanleek. Eta Iruñeko auzo bilakatzea ez da bakarra. Orain artean egin diren urrats guztiak, ordea, helburu horrekin egin dira, Mendillorri Iruñean sartzeko, alegia. 1993an

bertan, urbanizaziora lehenengo biztanleak ailegatu zirenean, orduan Nafarroako Gobernuko lehendakariorde zen Miguel Sanzek Mendillorri bailaratik banandu eta Iruñean sartzeko espediente zabaltzeko eskatu zion Eguesibarko Udalarri.

Eta Eguesibarko Udalak behin baino gehiagotan onartu du dagoeneko Mendillorri bailaratik banandu eta Iruñeko auzo bilakatzeke aukera. Aukera hori bera jasotzen du iaz Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak sinatu akordioak. Banantze espediente hori blokeatuta gelditu zen iazko abenduan, Iruñeko Hiriburutza Agiria zela-eta, ez baitziren ados jartzen Nafarroako Gobernua eta hiriburuko udala. Ordutik joan den ostiralera arte geldituta egon da auzia.

Etorkizuna denek kezka • 1993. urtetik, beraz, eztabaida asko baina erabaki gutxi hartu da Mendillorriko etorkizunari buruz. Eta denborak aurrera egin ahala, haien kezka agertzen hasi dira gero eta gehiago diren urbanizazioaren biztanleak. Eguesibar eta Iruñeko udalen eta Nafarroako Gobernuaren tira-biren artean harrapatuta sentitu dute haien burua horietako askok.

Kezka horrek bultzatuta, Erreferendumaren Aldeko Plataforma sortu zen Mendillorri 1995. urte bukaeran, erran bezala. Mota askotako jendea bildu da talde horretan, dituen kezkek plazaratzeko asmoz. Horietako bat da Pello Lasa. «Hiru administrazioak —Eguesibar, Iruñea eta Gobernua— ados ziren, hirurek Iruñean sartu nahi zuten Mendillorri, eta bide horretan ematen ari ziren pauso guztiak. Baina bazen Mendillorri horrekin kezkatuta zegoen jende asko, Iruñea guretzat aukera bakarra ez zela uste zuten jende asko, eta horregatik erabaki genuen plataforma osatzeta, biztanle guztiei behar zen informazio guztia zabaltzeko», azaldu digu Lasak.

Mendillorriko biztanleei ahalik eta informazio zabalena helarazteko, hain zuzen, ekintza ugari egin dituzte Erreferendumaren Aldeko Plataformako kideek; besteak beste, urbanizazioaren etorkizunari buruz hitzaldi zikloa. Jardunaldi haietan, Nafarroako Gobernuko, Iruñeko Udaleko, Eguesibarko Udaleko eta Iruñeko auzo ezberdinetako ordezkariak izan ziren, beste batzuen artean. Tartean izan zen Javier Chourraute Iruñeko alkatea, eta hitzaldi hartan, 1996. urteko urtarrilaren 23an, Mendillorri Iruñean sartuz gero «treneko azken bagoia» izanen zela erran zuten.

Halako hitzak dira Mendillorriko biztanle askorengan benetako kezka eta etorkizunari buruzko ziurtasunik eza sortu dutenak. Kezka eta ziurtasun falta horren ondorio da, hain zuzen, Udal Propioaren Aldeko Auzokideen Ekimena sortzea, orain dela bi hilabete eta erdi. «Administrazioak ez zuela deus egiten konstatatu ginen, eta gure etorkizuna zegoela jokoan. Horren aurrean eztabaida piztea zen gure helburua, Administrazioak denbora pasatzen utzi besterik ez baitzuten egiten, erreferendumean abstentzioa nagusitzeko asmoz», azaldu digu Pello Goiatxe taldeko kideak.

Taldeko gainontzeko kideek bezala, Mendillorriko biztanleentzat aukerarik onena udal propioa sortzea dela uste du Pello Goiatxek, eta hori esateko dituen arrazoien berri eman digu. Hasteko, Eguesibarren jarraitzea ez du egokitzat jo Goiatxek, «aukerarik errazena bada ere, ez baita batere solidarioa. Azken finean, bailarako biztanleek ez zuten

Mendillorriren etorkizuna
argitzeko erreferenduma

Andoni Erdozain eta Pello Goiatxe, Udal Propioaren Aldeko Auzokideen Ekimeneko partaideak.

LUIS AZANZA

Egestarrak Mendillorri
banantzearen alde

EGUESIBARKO hego-mendebaldean den Mendillorriko historia 1990. urte inguruan sortu bazen ere, 1993ko udan hasi ziren hango etxebizitzaren lehenengoa jabeak urbanizaziora ailegatzeko. Abuzturako 269 etxebizitzaren jabeek eskuratuta zituzten giltzak, baina gehienak, irailla aldera ailegatu ziren. Gaur egun, 7.600 biztanle inguru ditu Mendillorri, eta horietako 5.749k izanzen dute igandeko erreferendumean bozkatzeko eskubidea (bai eta ibarreko gainontzeko herrietako 1.165 lagunek ere).

Mendillorriko lehenengo biztanleak urbanizaziora iritsi zirenetik azalean egon den arazoak konpondu gabe darrai, hau da, Mendillorri eta Eguesibarko beste herrien arteko harremana, urbanizazioaren beraren etorkizuna, finean. Joan den ostiralean Iruñeko alkate Javier Chourrautek eta Na-

farroako Gobernuoko lehendakari Miguel Sanzek, azken hilabeteetako etenaldiaren ondoren urrats berria eman eta hitz egiteko elkartu ziren. Hiriburutza Agiriaren auzia eztabaidatu ezezik, Mendillorri ere mahai gainean izan zen, eta urbanizazioari buruz —bera Iruñean sartzeko— aurrekordia lortu zuten bi administrazioetako agintariek. Mendillorriko etorkizuna zein izanzen den behin betiko zehazteko, dena den, beste hainbat urrats gelditzen da oraindik.

1993n Taller Sociologicok egindako inkestaren arabera, Eguesibarko biztanle gehienek (% 67,1) komunitatearen iraupena bermatzeko irtenbide bakarra Mendillorri Eguesibarko banantzea zela uste zuten.

Izan ere, Eguesibarko biztanleentzat Nafarroako Gobernuak inposatutako urbanizazioa izan da Mendi-

llorri. Eguesko alkate Jose Maria Senosiainek azpimarratu legez, adibidez, «komunikabideen bidez jakin zuten bailarako udalak Mendillorri eraiki behar zutela». Hori dela eta, bailarako biztanleak defentsiban egon dira beti Senosiainek dioenez, Mendillorrikoen aurrean.

Ezin uka daiteke, finean, Mendillorriko eta bailarako gainontzeko herrietako bizimodua guztiz ezberdina dela, gainontzeko herri horietako (Altuzza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Etxalatz, Gorraitz, Ibiriku, Oltaz Txipia, Sagasetta eta Sarriguren) bizimodua erabat landatarra den bitartean, Mendillorriko errealtatea guztiz urbanoa baita, hiri giroa da hangoa.

Hori dela eta, Mendillorriko bertako biztanle gehienek erabakirik egokiena Eguesibarko banantzea dela uste dute. Iazko martxoaren egun in-

kestaren arabera, adibidez, urbanizazioeko lagunak % 5 baino ez ziren bailaran jarraitzearen aldeko.

Egestarrentzat, dena den, Mendillorriekin gertatzen ari dena ez da berria, horrelako erroka bati lehen ere egin behar izan baitote aurre. Burlatak udal propioa lortu zuen arte, hain zuzen, bailararen barnean egon zen. 1900. urtean 1.715 lagun bizi ziren bailaran, eta horietatik 280 Burlatan bizi ziren.

Burlatoko biztanle kopuruak ordutik aurrera mardultze bidea hartu zuen, eta ibarra osatzen duten gainontzeko herrienak, berriaz, behera egin zuten. 60ko hamarkadaren amaieran, adibidez, 3.560 ziren burlatarak eta gainontzeko 970ak eguestarrak. Hiri eremua bailaratik banantzeko erabakia hartu zuten orduan ere, eta 1970. urteaz geroztik, udal propioa izan du Burlatak.

tuko». Udal propioaren aukera defendatzen dute, halaber, Herri Batasunak eta Batzarrek. Elias Albizu da HBk Eguesibarko Udalean duen zinegotzi bakarra, eta hark eman digu, laburbilduz, bere alderdiak duen iritzia: «Bailaran gelditzeko aukerarik ez dago, kontuan hartu behar baitugu guztiz ezberdinak diren bi errealtate biltzen direla han, eta ibarreko jendeak ez duela Mendillorri nahi. Iruñeko auzo bilakatzea, halaber, hondamendia izanzen litzateke Mendillorriren-

tzat. Mendillorri Nafarroako Gobernuak sortu duen errealtatea da eta orain ezin du utzi inolako arreta eskainiko ez dion jabe baten esku». Batzarrek ere —ez du zinegotzirik Eguesibarko Udalean—, udal propioaren abantailak defenditu ditu.

HBko zinegotziak agertutakoa ez da Eguesibarko Udalean dagoen iritzia bakarra. CDN, PSN, UPN eta GRIVE (independenteak), Mendillorri Iruñeko auzo bilakatzearen alde daude, eta IUk, azkenik, bailaran jarraitzea

jo du aukerarik egokienetzat. Jose Maria Senosiain alkatearen (CDN) ustez, Mendillorri Iruñean sartzea da irtenbiderik logikoena, «Iruñean zuen behararen ondorioz sortu baitzen urbanizazioa, eta iruindarrak baitira hango biztanle gehienak. Eguesibarko Udalak, gainera, ezin du bere gain hartu urbanizazioaren mantenimendua».

«Erreferenduari balioa kendu nahi diote» • Joan den ostiralean Miguel Sanzek eta Javier

Chourrautek egindako bilerak, bestalde, iritzi ugari sortu du Mendillorriko taldeen artean. Erran bezala, abenduaz geroztik etenda zegoen erakunde bien arteko komunikazioa berreskuratu eta Mendillorri buruz aurrekordia lortu zuten. Iruñeko Hiriburutza Agiria izan da bi administrazioen arteko eztabaida piztu duena. Azkenik, 1.800 milioi pezetako hitzarmena lortu du Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernutik, Hiriburutzari dagokionez. Mendillorriren truke, erran dutenez, Iruñeko Udalak ez du deus jaso.

Ostiraleko bilerak Mendillorriko etorkizunean eta igandeko erreferendumean izan den eraginari buruzko eztabaida piztu du berriro. Chourrautek eta Sanzen bileraren asmoa herri kontsultari duen balioa kentzea izan dela azpimarratu du, adibidez, Pello Lasa Erreferendumearen Aldeko Plataformako eta Batzarreko kideak. «Dena konponduta dagoela sinestara nahi digute, jendeak ez bozkatzeko. Baina gauzak inoiz baino okerrago daude».

Andoni Erdozainek ere eman digu bere iritzia: «Lau urtetan ez dira akordio batera iritsi, eta orain, erreferenduma baino astebe lehenago lortzen dute. Jendearen iritzian eragin nahi dute». Iruñeko Udalak Mendillorriren truke jaso dezakeen diruari buruz, halaber, hau azaldu digu Erdozainek: «Iruñeko Udalak Mendillorriren truke ez duela dirurik jasoko esan dute bileraren ondoren, baina azken hilabeteetako kontuei begiratzea besterik ez dago hori gezurra dela ohartzeko. Nafarroako Gobernuak 1.400 pezetako akordioa defendatu du beti, eta orain, bapatean, 1.800 ematen dizkio Udalari. Ez da kasualitate hutsa».

Elias Albizuk ere ez du sinesten Udalak ez duela dirurik jasoko Mendillorriren truke. «Egia bada, Mendillorri defizitarik ez duela onartzen ari dira, beraz, udal propioaren aurka erabili duten argudioak ez luke baliorik izanen».

Diruaren ingurukoa, dena den, ez da ostiraleko bileraren ondoren sortu den zalantza bakarra. Nafarroako Gobernuak igandeko erreferendumeko emaitza aintzat hartuko ote duen argitzeke dago oraindik.

Horren inguruko iritzia ere ugariak dira. Santiago Cervera Nafarroako Gobernuko bozeramaileak bileraren ondoko egunetan esan zuenez, herri kontsulta ez da loteslea baina politikoki kontuan hartu behar da. Beti ere, emaitzarik logikoena Iruñean sartzearen aldekoa dela gaineratu zuen.

Elias Albizu Herri Batasunako zinegotziaren ustez garrantzitsua da Nafarroako Gobernuak erreferendumeko emaitza onartuko duela erran izana, «udal propioaren aukera ez onartzen duela esan nahi baitu horrek».

Jose Maria Senosiain Eguesibarko alkateak ere, Nafarroako Gobernuak «herriarren iritzia entzun behar duela» esan du. X

inoiz eskatu Mendillorri, eta ibarretik kanpo nahi dute urbanizazioa».

Horretaz gain, Pello Goiatxek azpimarratu duenez Eguesibarko Udala ez da gai Mendillorri mantentzeko, «eta bailarako eta gure errealtatea, gainera, erabat ezberdinak dira».

Mendillorriko biztanle gehienak, hain zuzen, bikote gazteak dira, Goiatxek erran bezala, eta bikote horietako gehienek bi seme-alaba dituzte. Urbanizazioa jaiotze tasa Europako altuena dela ez da ahaztu behar. Iaz, adibidez, haur bat jaio zen Mendillorri eguneko, eta kopuru horrek gora egin du azken hilabeteetan. «Hiru urtez azpiko 1.500 haur inguru daude hemen», aipatu du Udal Propioaren Aldeko Auzokideen Ekimeneko kideak.

Errealtate horrek Mendillorri oraindik ez duen zerbitzu anitz eskatzen duela nabarmendu du, halaber, Pello Goiatxek, Nafarroako Gobernuak eman behar dituen zerbitzuak, alegia, Mendillorriko biztanleak, ordea, horietako askoren zain dira oraindik. «Hona etorri ginen hainbat zerbitzu eta hainbat hornidura izanen zela esan zigutelako». Mendillorriko Plan Partzialak, hain zuzen, hala jasotzen du, eta kirol, kultur eta bestelako ekipamenduak jartzeko lekuak zehaztuta badaude ere, oraindik egin gabe dago horietako asko.

«Haurtzaindegiko eraikuntzak urtebeteko atzerapena du jada, kiroldegia aurten zen hastekoa baina aurtengo aurrekontuetan ere ez da agertzen. Bederatzi urtetik gorakoentzat ez dago eskolarik, ez dago kultur etxerik...», salatu du Pello Goiatxek.

Mendillorri Iruñeko auzo bilakatzen bada, Nafarroako Gobernuak falta diren hornidura horiek guztiak egiteko duen konpromezuari ihes egiten diola uste du Udal Propioaren Aldeko Ekimenak, eta taldeko kideek ez dute uste Iruñeak inolako inbertsiorik egiten duenik, «kontuan hartuz Iruñeko periferian diren gainontzeko auzoekin daraman politika».

Udal propioaren aukera defenditzeko duten arazo nagusienetakoa hori da, finean, Iruñeko Udala Mendillorri dituen beharrak asetzeko gai izanzen ez dela uste baitute Auzokideen Ekimeneko lagunek, ez duela horretarako borondatearik agertuko. «Mendillorri bezala defizita duen udal batek ezin ditu gure arazoak konpondu», azpimarratu du Pello Goiatxek.

Ahots asko entzun da Nafarroako Gobernuan Mendillorri udal propioa bideragarria ez zela izanzen esanez, baina Auzokideen Ekimeneko lagunek ez dute iritzi berekoak, Andoni Erdozainek azaldu duenez. «Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalarik 380 milioi pezeta —Mendillorriko defizitaren kopurua— emateko prest agertu da Mendillorriren truke. Diru horrekin eta gure zergekin, udal bideragarria izanzen ginateke, eta diru guztia Mendillorrirentzat izanzen litzateke. Iruñeko Udalarik emanez gero, ziur gara ez lukeela hemen bakarrik gasta-

Xanti Begiristain

Patxi Larrainzarren zirikatzea

■ Kaixo *potxolo*, zerorrek esaten zenidan bezalaxe.

Nahiz eta orain dela sei bat urte desagertu zen mundu honetatik zure gorputz fisikoa, Patxi, zure pertsonak bizirik eta gure artean jarraitzen du oraindik. Frogarik hoberena hementxe dugu, *La provocación* izeneko zure azken liburua. Eta hauxe diot, ez hori delako zuk idatzirik azken liburua, baizik eta agur esan zenigunetik horixe delako kaleratu duten zure azken idazlana, baina guztiz ziur naiz horren atzetik beste asko iritsiko zaizkigula, batzuk lehenago plazaratutakoak, eta beste batzuk, ordea, lehendabiziko aldiz argia ikusiko dutenak.

Seguru nago oraindik makina bat bider izan behar dugula aukera jarraitzeko gozaten eta

eta irakasten zenekizkigun trikimailu eta jakinduria guztiak, alabaina badakizu, enborrik ez baldin badago ezin da ezpalik atera.

Askotan esaten zenigun, halaber, pertsonak jakin behar dutela hitz egiten beste gizakien aurrean, beren ideia eta nahiak argi eta garbi adierazteko. Ez dakit gure buru gogorretan emaitza handirik lortu ote zenuen, baina aholkuak behinik behin oraindik ez ditugu ahaztu zure ikasleok, eta horregatik beti izanen dugu esker ona zuretzat.

Beste mila gauza gehiagoren artean, oraintxe bertan gogoratzen ari naiz nola kritikaten zentuen errukirik gabe mundu honetako boteretsuak, jauntxoak, agintari gaiztoak, handiusteak, politikari maltzurak, pertsona aprobetxategiak, uste-



ikasten zure artikulu zorrotzekin, zure antzerki barregarri-negargarri, gozo-gazi eta mikitzaikin, zure eleberririkritiko-mingots eta graziosoekin, eta abar.

Bai Patxi, bizirik jarraitzen duzu eta horrela segituko duzu betiko, zure lana hor dagoelako. Eta zerbait balioko du zeren eta bestela ez bailituzkete argitaratuko zure idazlanak behin eta berriz.

Patxi, zure fruitua hilezkorra da zerorrek horrela egin zenuelako, eta aldi berean lan horrek zu ere hilezkor bihurtu zaitu aspalditik.

Ultzerak gauetan sortarazten zizun loezina, antza, oso ongi aprobetxatzen zenuen eta orain ikus ditzakegu horren emaitzak.

Nik bezain ongi dakizu zerorrek zure ikasle kaskar eta apar bat baino ez nintzela izan; hala eta guztiz ere, beti gogoratuko dut nola esaten zenigun idazterakoan egin behar genuela grinaz, kemenez eta gogo biziz: «Grinatsuak izan behar duzue idazten duzuenen».

Baina Patxi, batzuk idazlari arruntak atera baldin bagara, lasai egon, el, errua ez baita inondik inora ere zurea. Zu behintzat, gototik saiatu zinen,

lak, Elizaren goi hierarkia, eta abar eta abar luze bat.

Eta aldi berean mugagabeko samurtasun, sentiberatasun eta goxotasuna erakusten zenuen gizaritate honetako gizaki gaixo, behartsu, apal, gizaraxo eta zoritxarrekoendako. Niretzat bederen, berealdiko ikasgaia izan da. Orain gustura entzuten nuke Urralburu jaunak pentsatzen eta esaten duena zure liburuei buruz. Seguru asko ez litzuke adieraziko lehen erakusten zituen harropuzkeria eta nagusikeria.

Patxi, gogoratzen al duzu Zirardak nola debekatu zizun eskolak ematea idazten jarraitzeagatik? Beno, baina ez zen horretan gelditu, el; era berean, eskumikatu nahi zintuen arrazoi berberengatik, eta zure hileta-mezara ere ez zen joan. Ba al zenekien hori, Patxi?

Behin esan zenidan desanimatzen zintuela ikusteak nola zentsuratzen zituzten zure idazlanak. Nik esan nizun jarrai zenezala idazten, zeren eta batzuek behintzat gustura irakurtzen baikenizun. Zerorrek zenioen bezalaxe, «erretzen itxarongo dut zure hurrengo liburua». ■

Klasiko bitxi • arrunt klasiko

Joxemiel Bidador

Sineskeriazko literaturaren adibide batzuk

■ Jose Maria Iribarren Rodriguez, Molaren laguna eta baztandar erroko idazle tuterarrak sineskeriari buruzko literaturatzat jo zuen. Bejondeiola. Bi mende barru ere sineskeriazko literatura egiten ari ginela esanen dute, hortaz zalantzarik ez izan, eta 2222. urtean —bimila urtekoaren suntsipenarena gezur borobila baita—, horrela egiten dute gutaz hista, trufa isekatzaille gordina: «Inozo hutsak ziren haiek, engainatuak ziren bizi, bai ximplekeriak sinesturik!». Eta gaurkoan, ohituratzen hasteko, sineskeria landu zuten gure idazle batzuk nafarkariratuko ditugu.

Lehen eta behin, alpa dezagun Azkoiengo Martin Andosilla Arlaskoa eta San Juan, Albar ibarreko arzedianoa. Agramondarra, Azkoiengo Mosen Pierresi eskerrak Iruñeko gotzala zen Alonso Carrillok babesturik, Teologian doktoretza erdietsi zuen 1487.ean Sorbonako unibertsitatean. 1521.eko apirilaren 25an hil zen, eta Iruñeko eliz nagusiko klaustroan lurperatu zuten. Bere hilibiko arlauza Irigoien Dutari apezpikuarena egiteko berziklatu zuten 1778.ean, eta egun, Erratzuko elizan dago ahozpe. Perez Golenak estraineko inprimatu zuen nafartzat aurkeztu zigun. Alabaina bere *De superstitionibus contra malefica et sortilegia quae hodie vigent in orbe terrarum* edizio ugarien pairalea izan zen: Lyonen 1510.ean, Parisen 1517.ean, Erroman 1559.ean, Frankfurturten 1581.ean, Venezian 1584.ean, eta azkena, Goñiko Gaztanbideren eskutik, Iruñean 1971.ean. Herriaren gutiz gehiengo sineskeri okerrek aztoratu egiten zuten gure Andosilla, eta ezin zituen konprenitu jende arruntaren ustekeri erroak. Edozein modutan ere, berauk ere txerrena nonnahi ikusten zuen, eta besteen artean, sorginak alpagai izan zituen: «Et primo de falsa opinione credentium illas maleficas et sortilegas mulierculas, que ut plurimum vigent in regione basconica ad septentrionalem partem montium Pireneorum, que vulgariter broxe nuncupantur, posse transferri de loco in locum per realem mutationem». Untzitin luzaro bizi izan zen, eta hortik, euskaraduna zelako ziurtasuna izan dezakegu, bere idazkian nafar hizkuntzarena arras gutxitan ekarri arren: «Dies traslationis beati Martini, quem vulgares dicunt esse semper periculosum, vocantes sua lingua montana vel basconica Jandone Martie erroya, quod latine intellectum idem est quod Sanctus Martinus corvus».

Andosilla baino askoz ere sineskeriazaleagoa Martin Kastañega frantzikotar bizkaitarra genuen. Honek *Tratado muy sotil y bien fundado de las supersticiones y hechicerías y vanos conjuros* idazki zoroa atera zuen Logroñoko Migel Egiarenan 1529. urtean. Deabrukeria kristautasunaren benetako kirbin infernutiar jaso zuen, eta sakramentuen aurrean akilimarrori laketa emateko esakramentuen deskribapena eman zigun oparo: meza beltza, banpirismoa, antropofagia... Sorginen berri ematerakoan aurreiritzi determinista plazaratu zuen: «Si alguna persona recibiese alguna cosa de de su madre o abuela sorguiña, en señal que le dexara aquella familiaridad con el demonio, aunque no lo creyese, si con aquella sospecha consistiese, parece que da licencia y autoridad al demonio para que disponga de ella».

Raimundo Amunarriz Labrit Herriberriko semea eta zisterreko anai legoa zenak gertu gertutik jarraiki zion aurrekoari. Musikari ona, organojole nahiz organugile aparte omen zen, Iruñeko eliz nagusiko organuari buruzko 1744.eko iritzialak honen bermagarri baditugularik. Felipe V.ak Marzillako komentuko abade izendaturik, bertan hil zen 1753.ean. Ale asko zituzkeen bildumaren hasmentakoa baizik ez zuen karrikaratu, hau da, *Tablas systemáticas de la creación del mundo, de su orden y sus estados, explicadas y moralizadas*, Iruñeko Martinezen etxean 1745.ean. *De la creación del mundo en común y de la naturaleza angélica en particular* honek oreto gaiak hauek ditugu: jaungoikoa nor den, honek mundua nola sortu zuen, munduko estatuen histori laburra, zein gauzak diren ezerezatik sortuak izan direnak, aingeruak nola sortu ziren eta aingeru txarrak zergatik matxinatu ziren, eta azkenik, aingeru guztiak, onak zein gaiztoak, nola gobernatzen diren. Deabruaren alde diren aingeruez idatzirikoak goxoan dira: «Lucifer y sus malos angeles se gobiernan en el reino del infierno por 9 órdenes, al modo de los batallones, y los oficios en los que se emplean los demonios son: pseudotheos, mendaces, vasos de iniquidad, furias infernales, diablos exterminadores, aereas potestades, prestigia-tores, crimiñatrices, eta tentadores». *Aereas* deitu zituen zeregina honakoxea dugu: «Su oficio es alterar los elementos y fulminar tempestades. Son los que mezclándose con las nubes, corrompen el aire y hacen a los truenos más terribles», eta honekin batera Nafarroako apez ehiztari baten ipuin polik bat ekarri zuen adibide. Azken boladan modan jarri diguten Uxueko izenaz ere berea eman zuen: «Llámase este pueblo Ussua en la lengua vascónica, que es lo mismo que paloma en el castellano idioma».

Ahitzeko alpa dezagun Urantziako Frantzisko anai kaputxinotarra (1745-1812). 1760.ean Zintronikoko komentuan profesioa egin zuenetik, pisuzko karguak izan zituen, besteak beste, Iruñeko komentuko zaintzalea, ordeneko definidorea, edota probintziala, eta lan ugarien egilea izan zen. Guri interesatzen zaigun *Conversaciones instructivas entre el padre Frai Bertoldo y D. Terencio*, Iruñean 1786. urtean argira elki zen. Juan Bautista Jordan, Iñigo Claro eta Jose Etxeberría zensoreez osatu hirukoteak baimena eman bazion ere, bertan esanikoek idazle ilustratuen kritika latz eta dauseztatzailleak eragin zituzten. Iriarte fabulagilerenak bereziki, eta, hondarrean, inksizioak debekatu zuen 1789.eko maiatzaren 24an, traurilea erlijioaz trufatzera eramaten zuelako uste nabarmenean. ■

Mainamikirri sorginaren itzulera

Ikuskizun berria aurkeztuko du Aitzindari dantza taldeak bihar, Altsasuko Burunda pilotalekuan

A Itsasuko Aitzindari Euskal Dantza Taldeak Mainamikirri ikuskizun berria aurkeztuko du bihar, herriko Burunda pilotalekuan, gaueko 22:30etan. Dantza talde horren ibilbidean beste urrats bat da aipatu ikuskizuna, euskal dantzak ez ezik dantza garaikidea eta antzerkia ere landu baitituzte Mainamikirri-n Aitzindarikoek. Herriko sorgin baten kondaira oinarritzat hartu duen lan horrek altsasuarren jakinmina piztu du dagoeneko.

Edurne Elizondo / Iruñea

HERRITARREN jakinmina bihar gauean aseko dute Aitzindari taldeko dantzariak. 40 inguru igoko dira Burunda pilotalekuan prestatu taula gainera, abenduan hasitako lanaren emaitza eta fruitua erakustera. Lan berri eta berritzailea, hain zuzen ere, orain arte inoiz ez bezala euskal dantzekin batera dantza garaikidea eta antzerkia landu baitituzte Altsasuko taldeko kideek, eta nahasketa berezia lortuz. Dantzariak azpimarratu dutenez, dena den, aldaketa ez da erabatekoa, euskal dantza baita oraindik Aitzindariaren oinarri eta giltzarri. Betiko herri dantzei eta dantza tradizionalari haize berria emateko aukerari, hala ere, ez diote uko egin.

Mainamikirri ikuskizunak izen bereko Altsasuko sorginaren kondaira hartu du oinarri. Kondairak dioenez, sorgin txiki, eder eta azkarra zen hura, eta bazekien nola sendatu erregeak gaixo zuen alaba. Hori zen sorginaren sekretua. Behin, errotan arropa garbitzen ari ziren herriko emakumeekin zegoela, sekretuaren berri eman zien, eta errotariak, handik hurbil baitzegoen, entzun eta erregeari erran zion. Mainamikirri horren berri izan zue-nean, hil egin zuen errotaria. «Horregatik esaten dute Altsasuko errotako harria gorria dela», aipatu digu Aitzindari taldeko kide Ester Irisarrik.

Kondairako istorioari erabat atxiki gabe, Mainamikirri eta Altsasuko beste sorginen gora-beherak kontatzen ditu bihar herriaren estreinatuko duten ikuskizunak. Altsasuko erromeria, Luzaide, Lantz eta Altsasuko inauteriak, Urdaingo San Joan gaua, Zuberoako maskarada eta Mainamikirri eta Aker herriko gaztearen arteko maitasuna dira lan horrek agertzen dituen bestelako gaiak. Urdaingo herriari dagokionez, hain zuzen, hangoen eta Altsasukoen arteko eztabaida —onuragarria, betiere— piztu du Aitzindariaren ikuskizun berriak: «urdiaindarrek diotenez, hangoa baitzen sorgin famatua», esan digu taldekideak.

Aipatutako horiek guztiak ez ezik, bada altsasuarren ikuski-



Altsasuko Aitzindari dantza taldeko kideak, hilaren 21ean egin entseiu nagusian.

XENDA ARGAZKILARIAK

«Obra bera bezala, musika mistoa da»

ALTSASUKO Aitzindari Euskal Dantza Taldeko kideek eskatuta, Burlatako Ataitz txistu bandak jarri dio musika Mainamikirri ikuskizunari.

Talde bien arteko harremana eta lankidetzaren dena den, lehenago hasi zen, Aitzindari eta Ataitz taldeetako hainbat kidek elkarrekin egin baitute lan Gozategi taldearen Gozategi blai ikuskizunarekin.

Ataitz taldeko kide Alfonso Iturririk azaldu digunez, zatika landu dute ikuskizuneko musika:

◆ «Gidoia bidali ziguten le-

hendabizi, istorioa ezagutu eta aztertze, eta gero, musika eszenaz eszena jartzeko konprometua hartu genuen. Fasi-kuluka lan egin dugula esan daiteke. Azkenean, guztiak onartu zituzten dantzariak. Eta zati bakoitza landu ondoren, guztia lotzea izan zen azken lana».

Mainamikirri ikuskizuneko musika aukeratze-ko, hainbat konpositorek utzitako piezak hartu dituzte Ataitz taldeko kideek oinarri. Baina Iturririk azpimarratu duenez, «Mainamikirri pertso-

naiaren dantza garaikideari musika jartzea izan da zailena».

Emaitzarekin, hala ere, kontent ageri da Iturri txistularia: «Carlos Sanchez Ekizaren Akelarreko lezea eta Erantzun gabeko galderak aukeratu ditugu. Harmonia garaikidea dute, eta giro berezia sortzen da. Obrako gainontzeko piezak dantza tradizionalen moldaketak dira. Orokorrean, obra bera bezala, musika ere mistoa dela erran daiteke, tradizionalaren eta egungoaren arteko nahasketak».

Bada, ordea, Iturriren iritziz berezia den beste une bat Aitzindari taldeko kideen lanean, Mainamikirri eta Aker gaztearen arteko azkeneko dantza, alegia. «Une horretarako Alex Iribarren pieza bat aukeratu dugu, txistu, silbote eta pianoarekin. Kutsu klasikoa du, berezia da. Dantza oso polita da, eta musika ongi egokitzen zaio».

Bihar estreinatuko den obran parte hartu izanagatik pozik da Alfonso Iturri: «Nafarroan eta, orohar, Euskal Herrian, gutxi gara halako musika

egiten dugun txistu taldeak. Horregatik, guretzat oso garrantzitsua da Mainamikirri bezalako ikuskizun batean parte hartzeko guri dei egin izana. Aukera ematen digu erakusteko txistua beste musika mota batzuekin lotu eta beste zenbait giroan ere erabil daitekeela».

Alfonso Iturriak ezezik (txistu lehena), Iñaki Kanpionek (perkusionista), Jose Javier Irigoienek (silbotea) eta Edurne Kanpionek (txistu bigarrena) ere osatzen dute Ataitz taldea.

zunak argi eta garbi agertzen duen beste gai inportante bat, Irisarriren ustez: urteko sasoiaren joan-etorria, hain zuzen ere. «San Joan gauak, adibidez, herriko emakumeak sorgin bihurtzen diren unea irudikatzen du. Inauteriak, halaber, pertsonaia batetik besterako aldaketa zikloa adierazten dutelako aukeratu ditugu, barruan duen beste zerbait agertzeko mozorrotzen baita jendea».

Euskal dantzak, antzerkia eta dantza garaikidea • Ester Irisarrik argi eta garbi azaldu digu

Mainamikirri dantza ikuskizun bat baino gehiago dela. Alde batetik, erran bezala, dantza garaikidea eta antzerkia landu dituzte. Dantzari dagokionez, Iruñetik Altsasura joan da Carmen Larraz dantzaria Aitzindari taldeko kideekin lan egitera, eta Montxo Iturberekin antzerkia landu dute. Irudiarri ez ezik, musikari ere arreta berezia eskaini diote Altsasuko dantzariak, eta horretarako Burlatako Ataitz txistu bandarekin egin dute lan.

Mainamikirri prestatzea —taula ganean jendaurrean erakustea falta da oraindik— esperien-

tzia berri eta berezia izan da Aitzindari taldeko kide guztientzat. Baina bai eta zaila ere Irisarrik azpimarratu duenez, «antzerkia edo dantza garaikidea bezalako espresio bideak orain artean ez baititugu inoiz landu».

Hala eta guztiz ere, beharrezkotzat jo du dantzariak Aitzindari taldeak egin duen urratsa, «euskal dantza ezin baita arin-arin gelditu; zerbait gehiago behar da, zerbait berria, jendeari betikoa ez den zerbait eman behar diogu».

Carmen Larraz eta Montxo Iturberekin laguntza ez ezik, beste

hainbat jende ere hartu du parte Aitzindariaren lan berriaren prestaketan. Cristina Gonzalez altsasuarra, adibidez, jantzien diseinua egin du, eta Diego Pino eta Juan Pablo Urizar, besteak beste, eszenatokia prestatzen aritu dira.

Horien guztien eta Aitzindari Euskal Dantza Taldeko kideen lanaren fruitua bihar ezagutu ahal izanen dute altsasuar guztiak, gaueko 10:30etatik aurrera, Burunda pilotalekuan. Ikuskizunak ordu bete iraunen du eta adin guztietako jendeari zuzendua dago. X

◆ Xabier Terreros ◆ Bertsolaria

«Gazteen bertsoekin identifikatzen naiz»

J oan den ostegunean, Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketako finala jokatu zuten Iruñeko Gurutze Plazako Ximenez de Rada institutuan. Bateko saioan, sei bertsolari gazte aritu ziren lehian, txapela nork eskuratu erabakitzeko. Azkenean, Xabier Terreros hamasei urteko lesakarrak eraman zuen etxera.

Edurne Elizondo / Iruñea

TXAPELA irabazi ezezik, lesakarrak bigarren eta hirugarren postuak ere lortu zituzten Iruñeko saioan, Ekhine Etxepeteleku eta Erika Lagoma gazteek, hain zuzen ere. Bertsolaritzak, beraz, etorkizun polita du Bortzirietako herri horretan. Horri buruz eta irabazi berri duen txapelari buruz hitz egin dugu Xabier Terrerosekin.

■ Ez da lehiaketan parte hartzen duzun lehen aldia; bai, ordea, txapela irabazten duzuna. Zer moduz?

Orain ongi. Orain dela hiru urte eta bi urte ere parte hartu nuen txapelketan baina hau da, bai, nire lehenengo txapela. Eta nahiko zaila izan da irabaztea, finalen denak egon ginelako hagitz urduri. Ni beti bezala, hasieran urduri jarri nintzen, baina bertsoak kantatzen joan ahala gero eta lasaiago sentitu nintzen. Eta orain kontent. Familia eta lagunak ere kontent dira, anitz poztu dira. Gainera, hiru lesakar izan gara hiru lehendabizikoak.

■ Nolako bertsoak entzun zenituen finalan, nola ikusi zenuen zuen gazteon maila?

Nik uste dut bertsoak nahiko onak izan zirela, eta saioa bera ere beste urteetan baino arinagoa izan zen. Aurrekoetan motelagoak izan dira saioak, denbora gehiago eman dugu pentsatzen, eta aurten uste dut nahiko bizia izan zela eta maila ona erakutsi genuela denok. Bertso politik entzun ziren.



Xabier Terreros txapelketako finaleko saioan kantatzen, eta atzean gainontzeko partaideak.

OSKAR MONTERO

■ Zuentzat, hala ere, zaila izan da oraindik bat-batean aritzea, ezta?

Bai, batez ere hori delako ia gure aukera bakarra. Urtean zehar ez dugu egiten bat-bateko saiorik, txapelketa da ia bakarra, hori eta beste hiru edo lau gehienez jota. Orduan, nahiko gogorra da guretzat. Azken aldian Iruñeko hainbat eskolara joan gara saioak egitera, baina uste dut aukera gehiago izan beharko genukeela. Bestela, eskolan dugu bakarrik trebatzeko aukera. Eta ikastetxeetan saioak egitea, adibidez, uste dut ideia polita dela, batez ere guk konfiantza hartzeko, bestela hagitz gogorra delako txapelketan parte hartzea.

■ Hamasei urte eta lehenengo

txapela etxean. Nola hasi zinen bertsoak kantatzen?

Bertso Eskolan hasi nintzen orain dela sei edo zazpi urte, baina lehenagotik ere ikastolan ikasi genuen zerbait. Pentsatzen dut hor sortu zitzaidala zaletasuna, eta gero Bertso Eskolan serioago hartu nuen bertsolaritza.

■ Lesakan, gainera, ez zara bakarra. Zure adineko bertsolariet gain, hor dira jada Euskal Herri osoko plazetan ibiltzen diren Estitxu Arozena, Xabier Silveira edo Estitxu Fernandez. Zer du Lesakan hainbeste bertsolari sortzeko, hainbeste jende gazte bertsoan aritzeko?

Hor, argi eta garbi, Manolo Arozenaren lana dago, lan handia egin du Lesakan bertsolaritza aurrera eramateko. Gu hasi baino lehen atera ziren Estitxu Fernandez, Estitxu Arozena, Xabier Silveira eta beste Bortzirietako Bertso Eskolatik, eta nik pentsatzen dut Manolo Lesakan bizi izan

nak eta eskola Lesakan jarri izanak eragin handia izan duela. Azken urteetan, gainera, bertso giro handia sortu da gazteen artean herrian. Lesakan, adibidez, bertso saioak egiten direnean jende anitz biltzen da.

■ Silveira edo Estitxu Arozena bezala, adibidez, bertsolari izan nahi duzu, plazaz plaza kantatzen ibili?

Oraingoz, behintzat, gogoia badut, baina hamasei urte daukat bakarrik, ezin dut erran hemendik zortzi urtera zer egingen duan. Baina gustatuko litzaidake, bai. Baina zaila dela uste dut, eta Nafarroan oraindik gehiago, hemen plazaz plaza ibiltzen direlako txapelduna eta bigarrena edo hirugarrena; gainontzekoek hagitz zaila dute. Gipuzkoan anitz ibiltzen dira, baina hemen zailago dago. Hala ere, gero eta bertsolari gazte gehiago dagoela uste dut, gero eta gehiago entzuten dira eta hori ongi dago.

■ Egungo bertsolarien artean, hain zuzen, zein duzu gogoko?

Lehenago gustatzen zitzaidan Jon Sarasua, eta orain Jon Maia, eta hemen Nafarroan Xabier Silveria ere bai, anitz gustatzen zait. Gazteen bertsoekin ni gehiago identifikatzen naiz. Agian bertsolari hobeia izanen da Andoni Egaña, edo Sebastian Lizaso, baina Jon Maiaren edo Silveiraren bertsoak nireagoak balira bezala sentitzen ditut, gai aldetik batez ere.

■ Bertsolari horiek kantatzen dituzten bertsoek, edo zuk kantatzen dituzunak, zertarako balio dute zure ustez?

Nire ustez, bertsoak kantatzen segitzen dugun bitartean euskal ohitura bat bizirik mantenduko dugu. Bertsoek, gainera, Euskal Herrian gertatzen diren gauzak kontatzeko aukera ematen digute, eta gainera, munduko injustiziak eta gauzarik makurrenak salatzen beste bide bat dira. x

«Manolo Arozenak lan handia egin du Lesakan bertsolaritza aurrera eramateko»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

